"YAKIN"'en II) Saillaren barnean, egoki ez, ausaz, "Euskal-Pedagojia" izenez, beste sailtxo bat idekitzea?

Urrestarazu'tar Andoni
" UMANDI "

---

" YAKIN" erako

Bolivia'n naiz. Beni aldean. Bero ikaragarria da. Eltxoak ondo astindu naute gaur.

Gaueroko errosario eta abestiak bukatu eta eleizatxoa itxi ondoren, erria lotaratu da. Ba-noa nere gelara. Indio batek, burua ondo makurtuaz, eskeintzen dit illeroko korreoa. Nere gelan argizaria pistu det eta, ene bada... nere begiak "YAKIN" topatzen dute. Zenbaki bakarra.

Gau ontan ez det lo askorik egin. Patxaran irakurri det guztia. Eltxoak ere, pakean utzi nautela dezaket.

Ekarri asko!

Arantzazu'ko mixiolari bat